



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko urtarrilaren 20a

14. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A :

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, gobernu zentrala premiatzen da behar den erabakia har dezan, Jurramendi-1976ko gertakariak direla-eta Estatuko Administrazioan dauden afera, egintza, dokumentu, informazio, datu eta objektu guztiak desklasifikatzeko. Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordeak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Noingo Elortzibar DBHiren beharrianetarako konponbide bat zehaztu dezan. Hezkuntza Batzordeak onetsia (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskoletan haur-pobrezia prebenitzeko eta kontrolatzeko sistema bat ezar dezan Hezkuntza eta Eskubide Sozialetako Departamentuen artean. Mozioa erretiratzea (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aitortzen du odola, organoak eta ehunak ematea ekintza altruista eta txalogarria dela. Mozioa erretiratzea (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da adingabeen alkoholismoari aurrea hartzeko plan bat egin dezan. Eskubide Sozialetako Batzordeak bazter utzia (4. or.).

F S A I L A :

Galderak:

- Galdera, Iruñeko udaletxean, Sanferminetan, ikurrina ikusi nahi zuela-eta Nafarroako Gobernuko lehendakariak egindako adierazpenei buruzkoa. Galdera erretiratzea (5. or.).
- Galdera, bake eta bizikidetzaren arloko jarduerak egiteko Nafarroako Gobernuaren laguntzen deialdiari buruzkoa. Galdera erretiratzea (5. or.).
- Galdera, Vaughan TVk bere lizentziari uko egin ostean EITBri Nafarroan emititzeko lizentzia bat emateko iragarpenari buruzkoa. Galdera erretiratzea (6. or.).
- Galdera, terrorismoa goratzeko pintadak ezabatzeko protokoloa hautsi izanari buruzkoa. Galdera erretiratzea (6. or.).
- Galdera, terrorismoa goratzeko pintadak ezabatzeko protokoloa hautsi izanari buruz Gobernuko lehendakariak 2016ko abenduaren 15eko Osoko Bilkuran egindako adierazpenei buruzkoa. Galdera erretiratzea (6. or.).

- Galdera, Castejonen hilda aurkitutako pertsonari buruzko ikerketa Guardia Zibilar bideratzeko arrazoiei buruzkoa. Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordean izapidetzea (7. or.).
- Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak zer urrats egin dituen 2016ko apirilaren 20an onetsitako mozioa betetzeko, zeinaren bidez Gobernua premiatzen baitzen publizitaterik jar ez dezan prostituzio-iragarkiak dituzten hedabideetan. Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordean izapidetzea (7. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak pentsio planetako zerga-arinketaren gehieneko muga murrizteko harturiko erabakiari buruzkoa. Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetzea (8. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, gobernu zentrala premiatzen da behar den erabakia har dezan, Jurramendi-1976ko gertakariak direla-eta Estatuko Administrazioan dauden afera, egintza, dokumentu, informazio, datu eta objektu guztiak desklasifikatzeko.

HERRITARREKIKO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordeak, 2016ko azaroaren 16an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, gobernu zentrala premiatzen da behar den erabakia har dezan, Jurramendi-1976ko gertakariak direla-eta Estatuko Administrazioan dauden afera, egintza, dokumentu, informazio, datu eta objektu guztiak desklasifikatzeko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Gobernu Zentrala premiatzen du, Sekretu Ofizialei buruzko apirilaren 5eko 9/1978 Legean –urriaren 7ko 48/1978 Legeak aldatutakoan– ezarritakoarekin bat, behar den erabakia har dezan, Jurramendi-1976ko gertakariak direla-eta Estatuko Administrazioan dauden afera, egintza, dokumentu, informazio, datu eta objektu guztiak desklasifikatzeko, 1976ko maiatzaren 9ko gertaeren aurrekoak zein gerokoak”.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Noaingo Elortzibar DBHIren beharrianetarako konponbide bat zehaztu dezan.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2017ko urtarrilaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Noaingo Elortzibar DBHIren beharrianetarako konponbide bat zehaztu dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du konponbide bat zehaztu dezan –Noaingo Elortzibar DBHIko egungo instalazioen espazioak handitu nahiz eraikin berri bat eraiki–, ikastetxe horrek eremu horretako ikasle

guztiei kalitatezko hezkuntza-erantzun bat emateko moduan egon dadin eta, hortaz, hor eskolatu nahi duten ikasle guztiak hartzeko moduan egon dadin. Hori dela-eta, Hezkuntza Departamentua premiatzen du egin beharreko obrak egin ditzan, ikastetxe hori 2018-2019 ikasturtean matrikula osoa hartzeko moduan egoteko.

2. Nafarroako Parlamentua Noaingo DBHIko ikasleak eskolatuta dauden hizkuntza-ereduen arabera ikastetxe edo eraikin ezberdinetan banatzearen aurka dago; beraz, banaketa hori egitea dakarren konponbide oro arbuiatzen du”.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskoletan haur-pobrezia prebenitzeko eta kontrolatzeko sistema bat ezar dezan Hezkuntza eta Eskubide Sozialetako Departamentuen artean.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Eskubide Sozialetako Batzordeak, 2016ko azaroaren 22an egindako bileran, adierazi zuen jakinaren gainean dagoela Ana María Beltrán Villalba andreak aurkezturiko mozioa erretiratzeari dagokionez, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baitzen eskoletan haur-pobrezia prebenitzeko eta kontrolatzeko sistema bat ezar

zezan Hezkuntza eta Eskubide Sozialetako Departamentuen artean. Mozioa 2016ko urriaren 14ko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aitortzen du odola, organoak eta ehunak ematea ekintza altruista eta txalogarria dela.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Osasun Batzordeak, 2016ko azaroaren 22an egindako bileran, adierazi zuen jakinaren gainean dagoela Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko mozio erretiratzeari dagokionez, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak aitortzen baitzuen odola, organoak eta ehunak ematea ekintza

altruista eta txalogarria dela. Mozioa 2016ko urriaren 28ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da adingabeen alkoholismoari aurrea hartzeko plan bat egin dezan.

ESKUBIDE SOZIALETAKO BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Ana María Beltrán Villalba andreak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da adingabeen alkoholismoari aurrea hartzeko plan bat egin dezan."

Legebiltzarreko Eskubide Sozialetako Batzordeak, 2017ko urtarrilaren 18an egindako bilku-

ran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2016ko abenduaren 5eko 145. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, Iruñeko udaletxean, Sanferminetan, ikurrina ikusi nahi zuela-eta Nafarroako Gobernuako lehendakariak egindako adierazpenei buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Ana María Beltrán Villalba andreak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera Iruñeko udaletxean, Sanferminetan, ikurrina ikusi nahi zuela-eta Nafarroako Gobernuako lehendakariak

egindako adierazpenei buruzkoa zen, eta 2016ko irailaren 9ko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, bake eta bizikidetzaren arloko jarduerak egiteko Nafarroako Gobernuaren laguntzen deialdiari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Ana María Beltrán Villalba andreak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera bake eta bizikidetzaren arloko jarduerak egiteko Nafarroako

Gobernuaren laguntzen deialdiari buruzkoa zen, eta 2016ko irailaren 9ko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, Vaughan TVk bere lizentziari uko egin ostean EITBri Nafarroan emititzeko lizentzia bat emateko iragarpenari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Ana María Beltrán Villalba andreak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera Vaughan TVk bere lizentziari uko egin ostean EITBri Nafarroan emititzeko lizentzia bat emateko iragarpenari

buruzkoa zen, eta 2016ko irailaren 16ko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, terrorismoa goratzeko pintadak ezabatzeko protokoloa hautsi izanari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Ana María Beltrán Villalba andreak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera terrorismoa goratzeko pintadak ezabatzeko protokoloa

hautsi izanari buruzkoa zen, eta 2017ko urtarrilaren 2ko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, terrorismoa goratzeko pintadak ezabatzeko protokoloa hautsi izanari buruz Gobernuoko lehendakariak 2016ko abenduaren 15eko Osoko Bilkuran egindako adierazpenei buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Ana María Beltrán Villalba andreak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera terrorismoa goratzeko pintadak ezabatzeko protokoloa hautsi izanari buruz Gobernuoko lehendakariak

2016ko abenduaren 15eko Osoko Bilkuran egindako adierazpenei buruzkoa zen, eta 2017ko urtarrilaren 2ko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, Castejonen hilda aurkitutako pertsonari buruzko ikerketa Guardia Zibilari bideratzeko arrazoiei buruzkoa.

LEHENDAKARITZAKO, FUNTZIO PUBLIKOKO, BARNEKO ETA JUSTIZIAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordean izapidetu dadin Ana María Beltrán Villalba andreak aurkezturiko galdera, Castejonen hilda aurkitutako pertsonari buruzko ikerketa Guardia Zibilari bidera-

tzeko arrazoiei buruzkoa. Galdera 2016ko azaroaren 18ko 136. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak zer urrats egin dituen 2016ko apirilaren 20an onetsitako mozioa betetzeko, zeinaren bidez Gobernuak premiatzen baitzen publizitaterik jar ez dezan prostituzio-iragarkiak dituzten hedabideetan.

HERRITARREKIKO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordean izapidetu dadin Ana María Beltrán Villalba andreak aurkezturiko galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak zer urrats egin dituen 2016ko apirilaren 20an onetsitako mozioa betetzeko, zeinaren bidez Gobernuak

premiatzen baitzen publizitaterik jar ez dezan prostituzio-iragarkiak dituzten hedabideetan. Galdera 2016ko abenduaren 5eko 145. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, Nafarroako Gobernuak pentsio planetako zerga-arinketaren gehieneko muga murrizteko harturiko erabakiari buruzkoa.

GARAPEN EKONOMIKORAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetu dadin Ana María Beltrán Villalba andreak aurkezturiko galdera, Nafarroako Gobernuak pentsio planetako zerga-arinketaren gehieneko muga murrizteko harturiko erabakiari

buruzkoa. Galdera 2017ko urtarrilaren 2ko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza